

AIaren jagoletzaren metodologia, 2022-23

Informazio sistema eta iturriak

COVID-19aren pandemiak Lehen Mailako Arretaren antolaketan izan zuen inpaktuak erabat baldintzatu du arnas infekzioen zaintza azken bi denboraldietan (2020-21 eta 2021-22). Inpaktu hau gutxituta, eta Gaixotasunak Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Europako Zentroaren (ECDC) eta Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) nazioarteko gomendioei jarraikiz, 2022-23 denboraldirako arnas-infekzio akutuen (IRA) zaintzari ekin zaio, Gripea Zaintzeko Sistemaren esparruan lortutako esperientzian oinarrituta.

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) AIaren zaintza-sistemak honako iturriak eta informazio sistemak barne hartzen ditu:

- AIA arinaren jagoletza Lehen Mailako Arretan
- AIA larriaren (AIAL) jagoletza Osakidetzako ospitale-sarean
- Gripe agerraldiak
- Zaintza biologiko ez jagolea
- COVID-19aren zaintza espezifikoa

AIA arinaren jagoletza Lehen Mailako Arretan

AIaren zaintzak bi osagai ditu: sindromikoa eta hautaketa sistematikoa. Osagai sindromikoa Lehen Mailako Arretako kontsultetara joaten diren AIA kasuei buruzko informazioa astero eta sexuaren, adin-taldearen eta lurralde historikoaren arabera jasotzean datza. EAeren kasuan, erkidegoko Lehen Mailako Arretako kontsulta guztietako informazioa jasotzen da (osagai sindromiko exhaustiboa), eta AIA kasuen identifikazioa automatikoki egiten da, AIari dagozkion diagnostiko-kodeak (GNS-10) informatikoki aterata (ikus eranskineko 1. taula).

Identifikatutako AIA guztien artean, gripe-sindromearen eta bronkiolitisaren (bi urtetik beherakoetan) diagnostikoen datu bereziak lortzen dira, duten interes epidemiologikoagatik.

Hautaketa sistematikoko osagaia, kupo jagoleek egiten dutena, astean gutxienez 5 AIA kasu sistematikoki hautatzean datza. Horietan, laginak hartzen dira gripearen birusaren, SARS-CoV-2 birusaren, ABSaren eta beste arnas birus batzuen (metapneumobirusa, parainfluenza, adenobirusa, errinobirusa eta urtaroko koronabirusa) diagnostiko mikrobiologikorako.

2022-23 denboraldian, EAeko AIaren zaintza-sarea 48 kupo jagolek osatzen dute (37 helduenak eta 11 pediatriakoak), lurralde historikoen arabera honela banatuta: 8 kupo Araban, 24 Bizkaian eta 16 Gipuzkoan.

Zaintzaren bi osagaien adierazleen konbinazioari esker, gripea, COVID-19a eta ABSren infekzioa aldi berean eta sistema berarekin zaindu daitezke, eta zirkulatzen ari den edo etorkizunean ager daitekeen beste edozein arnas birusaren zaintza ere ahalbidetzen da.

AIA larriaren (AIAL) jagoletza Osakidetzako ospitale-sarean

ECDCk AIALak eragindako ospitaleratzeen zaintza-sistemak ezartzea gomendatu zuen, gripe, COVID-19 eta ABS mota larrien intentsitatea eta inpaktua monitorizatu eta ospitale-eremuko kasuei eta horien larritasun-patroiari buruzko informazio egokia lortzeko.

Zaintza hau ezarpen-fasean dago EAEn, eta une honetan osagai sindromikoari buruzko informazioa baino ez da lortzen; hau da, Osakidetzako ospitale-sarean sartzen diren AIAL kasuen asteko kopuruari buruzko informazioa biltzen da, sexuaren eta adin-taldearen arabera. Sexuaren, adinaren eta ospitaleratze-ospitalearen arabera identifikatutako kasuak automatikoki ateratzen dira, eranskineko 2. taulan definitutako GNS-10 kode diagnostikoak erabiliz.

Gripe agerraldiak

Gomendatzen da gripe-agerraldiak ikertzea Osasun Publikoko jarduketa bereziak behar izan ditzaketen egoeretan, hala nola gripearen aurkako txertaketa-estaldura handiko egoitza geriatrikoetan edo osasun-erakundeetan agerraldiak daudenean. EAEn kasuan, adinekoen egoitza batek gripe-agerraldi posible baten berri ematen duenean, hura ikertzen da, Epidemiologia Zentro Nazionalari jakinarazten zaio eta asteko txostenean argitaratzen da.

Zaintza biologiko ez jagolea

AIAren eta AIALren sistemeta jagoleen informazioaz gain, EAEn mikrobiologiako laborategiek (Basurtu, Gurutzeta, Donostia, Galdakao eta Txagorritxu ospitaleetako mikrobiologiako zerbitzuek) Informazio Mikrobiologikoko Sistemari (IMS) egindako jakinarazpenetik gripearen birusaren eta ABSren detekzioei buruzko informazio ez-jagolea lortzen da.

COVID-19aren zaintza espezifikoa

AIALren zaintza sistematikoa abian jartzen denean, EAEn AIAren eta AIALren zaintza osoa egiteko beharrezkoak diren tresnak izango dira. Bien bitartean, eta duen interes epidemiologikoa dela-eta, COVID-19aren zaintza espezifikoa egiten da, honako elementu hauek osatzen dutena:

- COVID-19aren asteko intzidentzia-tasa 60 urteko edo gehiagoko pertsonengan, Adierazi Beharreko Gaixotasunen datu-basetik ateratzen dena.
- Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko Mikrobiologia Zerbitzuek emandako SARS-CoV-2aren aldaeren eta azpialdaeren banaketa.
- COVID-19aren diagnostiko proba postibodun ospitaleratzeen kopurua, OBIEE sistemaren bidez lortuak.
- EAEn adinekoen egoitzetako erabiltzaileen artean baieztatutako COVID-19 kasuen kopurua eta eragindako zentron kopurua OBIEE sistematik astero lortuak.

Adierazleak kalkulatzeko metodologia

Lehen Mailako Arretan eta ospitaleetan gripe-jarduerak, COVID-19ak eta ABS infekzioak izandako bilakaerari buruzko informazioa lortzeko, osagai sindromiko eta sistematiakoetan lortutako informazioaren analisi epidemiologikoa egiten da. Lortutako informaziotik abiatuta, zenbait adierazle kalkulatu dira.

AIAREN eta AIALREN zaintza sindromikoko tasak kalkulatzeko, EUSTATEK emandako 2021eko EAeko biztanleria erabiltzen da erreferentzia gisa.

AIAREN zaintza sindromikoaren adierazleen kalkulua

- *AIAREN asteko tasak*: Asteko AIA kasu kopurua/populazioa*100.000. Totala eta lurralde historikoaren, adin-taldearen eta ESIAREN arabera kalkulatu da. ESIEN kasuan, tasen arteko arrazoa (aztertzen den asteko tasa/aurreko asteko tasa) eta arrazoi horren % 95eko konfidantza-tartea ere kalkulatu dira.
- *Gripe sindromearen/bronkiolitisen asteko tasak*: Gripe sindrome/bronkiolitis asteko kasu kopurua/populazioa*100.000. Totala eta lurralde historikoaren arabera kalkulatu da. Bronkiolitisen kasuan, <2 urteko kasuak eta populazioa erabiltzen dira.

AIAREN zaintza jagolearen adierazleen kalkulua

- SARS-CoV-2, gripe, ABS eta beste arnas birusen *asteko positibotasunaren ehunekoak*: Birus bakoitzaren asteko detekzio positibo kopurua/astean aztertutako lagin kopurua*100.

AIALREN zaintza sindromikoaren adierazleen kalkulua

- *AIALREN asteko tasak*: Asteko AIAL kasu kopurua/populazioa*100.000. Totala eta sexuaren eta adin-taldearen arabera kalkulatu da.

COVID-19AREN zaintza espezifikokoaren adierazleen kalkulua

- *COVID-19AREN asteko tasak 60 urte edo gehiagoko populazioan*: 60 urte edo gehiagoko asteko COVID-19aren kasu kopurua/60 urte edo gehiagoko populazioa*100.000. Totala eta sexuaren arabera kalkulatu da.
- *SARS-CoV-2AREN aldaeren ehunekoen banaketa*: Aldaera edo azpialdaera bakoitzaren detekzio kopurua/aztertutako aldaera guztiak*100
- *COVID-19AK eragindako asteko ospitaleratze-tasak*: Asteko COVID-19ak eragindako ospitaleratzen kopurua/populazioa*100.000. Totala eta sexuaren arabera kalkulatu da.

Eranskina

1. taula. Arnas Infekzio Akutuari dagozkion GNS-10 kodeak

Código CIE 10	Descripción	Códigos CIE-10 que se incluyen
J00	Rinofaringitis aguda [resfriado común]	J00 Rinofaringitis aguda [resfriado común]
J04	Laringitis y traqueítis agudas	J04.0 Laringitis aguda J04.1 Traqueítis aguda J04.2 Laringotraqueítis aguda
J02.9	Faringitis aguda no especificada	J02.9 Faringitis aguda, no especificada
J03.9	Amigdalitis aguda no especificada	J03.9 Amigdalitis aguda, no especificada
J06.9	Infección aguda de las vías respiratorias superiores, no especificada	
J20.3-J20.9	Bronquitis aguda	J20.3 Bronquitis aguda debida a virus Coxsackie J20.4 Bronquitis aguda debida a virus parainfluenza J20.5 Bronquitis aguda debida a virus sincitial respiratorio J20.6 Bronquitis aguda debida a rinovirus J20.7 Bronquitis aguda debida a virus ECHO J20.9 Bronquitis aguda, no especificada
J21	Bronquiolitis aguda	J21.0 Bronquiolitis aguda debida a virus sincitial respiratorio J21.1 Bronquiolitis aguda por metaneumovirus humano J21.9 Bronquiolitis aguda, no especificada
J22	Infección aguda no especificada de las vías respiratorias inferiores	J22 Infección aguda no especificada de las vías respiratorias inferiores
J09-J11	Gripe	J09 Influenza debida a virus de la influenza aviar identificado J10 Influenza debida a virus de la influenza identificado J10.0 Influenza con neumonía, debida a virus de la influenza identificado J10.1 Influenza con otras manifestaciones respiratorias, debida a virus de la influenza identificado J10.8 Influenza, con otras manifestaciones, debida a virus de la influenza identificado J11 Influenza debida a virus no identificado J11.0 Influenza con neumonía, virus no identificado J11.1 Influenza con otras manifestaciones respiratorias, virus no identificado J11.8 Influenza con otras manifestaciones, virus no identificado
J12	Neumonía viral, no clasificada en otra parte	J12.0 Neumonía debida a adenovirus J12.1 Neumonía debida a virus sincitial respiratorio J12.2 Neumonía debida a virus parainfluenza J12.3 Neumonía por metaneumovirus humano J12.8 Neumonía debida a otros virus (incluido el J12.81 Neumonía por Coronavirus SARS-CoV-2) J12.9 Neumonía viral, no especificada
J17.1	Neumonía en enfermedades virales clasificadas en otra parte	
J18.0	Otros tipos de neumonía, microorganismo no especificado	
J18.9	Neumonía, microorganismo no especificado	J18.9 Neumonía, microorganismo no especificado
U07.1	COVID-19	

2. taula. Arnas Infekzio Akutuari dagozkion GNS kodeak

Categoría	Signo o síntoma	CIE-10	CIE-9 e equivalente
Anormalidades en la respiración	Disnea, dificultad para respirar	R06.0,	788.05
	Síndrome de dificultad respiratoria del adulto	J80	
	Otras alteraciones de la respiración	R06.89	788.09
Infecciones	Alteraciones de la respiración no especificadas	R06.9	788.0
	Infecciones agudas del tracto respiratorio superior	J00-J06	480-488
	Gripe y neumonía	J09-J18	480-488
Otras enfermedades respiratorias	Otras infecciones agudas del tracto respiratorio inferior	J20-J22	488, 519.8
	Bronquitis	J40-J42	488, 490, 491
	Enfermedad pulmonar obstructiva crónica	J44.x	496
	Asma, estado asmático	J45.x	493
	Insuficiencia respiratoria, no clasificada bajo otro concepto	J96.x	788.09
Vinculados a COVID-19	Para las neumonías confirmadas como debidas al nuevo coronavirus de 2019 (COVID-19)	J12.82 U07.1	